

# BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure gizarteko nagusienek haien bizitza osoa lanean igaro ondoren **ez dute merezi duten arreta jasotzen**. Hortaz, bertan behar bat ikusten dugunez, gure ideiak behar horiek asetzeko alternatiba bat proposatzea izango du xede, zeinak **JUBIZIRIK** izango du izen gisa.

Hainbat ikerketek baieztatu duten bezala, **Euskal Herriko biztanleria zaharkitua** dago, eta ez hori bakarrik, emakumeek gizonek baino urte gehiago irauten dute, horrek emazte halargun asko bakarrik bizitza eragiten du. Eustaten arabera (<https://www.epdata.es/datos/pensiones-comunidad-autonoma-graficos-datos/34/pais-vasco/308>) bakarrik bizi diren 85 urtetik gorako pertsonak biztanleriaren **%12a** dira, 263.001 hain zuzen ere eta horietatik **%82,2 emakumeak**. Datu horiek argi ikustarazten digute giza talde oso handia direla, Euskal Autonomia Erkidegoan pisu handia dutenak.

EAEn **520.000** pentsiodun daude, horietatik 265.178 gizonak dira eta 254.075 emakumeak. Datu horiei erreparatuz biztanleriaren ia % 24a jubilatua da eta gure ikerketaren arabera horietako gehienek ez dute nahi izango luketen bizitza aktiboa eramaten. Beste era batera esanda, gaur egungo gizarteak **sedentarioak** izatera kondentzen ditu, haien nahien kontra. Ez hori bakarrik, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera **bakardadea** mundu mailako osasunarentzat mehatxu larria da. (Hurrengo link-ean **klikatuz**, hori baieztatu dezakezue). (<https://www.gaztezulo.eus/albisteak/osasunaren-mundu-erakundeak-mundu-mailako-osasunarentzat-mehatxu-larria-da-bakardadea>)

Hori guztia aldatzeko **JUBIZIRIK** sortu nahi dugu, gure aburuz, hirugarren adinak eskubidea du beste inork bezalako **arreta eta zerbitzu duinak** jasotzeko.

Gure zerbitzuaren berezitasunik nabarmenena **adin nagusiko** pertsonak **gazteekin nahastea** izango da. Gure ustez, harreman horrekin **bi gizarte taldeak onuradun** aterako dira, baita gizarte osoaren ongizatea bermatuko da, mundu hobe bat sortuz.

Alde batetik, gazteentzako **ikasketa prozesu** interesgarria eta baliagarria izango da. Konturatuko dira gaur egun ditugun erraztasunak eta baliabideak ez direla

betidanik egon, eta lehen jendeak zerbait lortzeko ikaragarri borrokatu behar zuela inolako laguntzarik gabe, hortaz bizitzaren alde zaila eta errealari buruz ohartaraztea izango du helburutzat.

Beste aldetik, nagusientzako aukera paregabea izango da gaur egungo modernitateak ikasteko; hala nola, tenknologia berriak, ekintza berriak, baliabide berriak, edota gaur **egungo pentsaera** ezagutzeko.

Denbora-pasa dibertigarriak eta kulturalak eskainiko dizkiegu **bizitza sedentariotik aktibora pasatzeko**, eta horrekin batera euren osasun mentala zein fisikoa hobetzeko.

Bestalde, gure eremuan hizkuntza aniztasuna oso garrantzitsua da, horregatik **hizkuntza berriak** ikasteko aukera izango dute. Frankismoa izan zituen ondorioak direla eta, askok ez zuten euskara ikasteko edota praktikatzeko aukerarik edo baliabiderik izan, gaztelera soilik erabili ahal zelako.

**JUBIZIRIK harreman berriak egiteko** proiektu aproposa iruditzen zaigu. Badago jende asko ez duenak norekin hitz egin eta gizartetik baztertzen dela gai ez delako besteekin harremantzerara beldurra edo presioa dela eta. Beraz, **JUBIZIRIK** laguntza eskaintzen duen proiektua dela uste dugu. Norbanakoen **poztasuna eta konfidantza** handitzeko tresna da, hau da, **osasun mentala sustatzeko** edo **hobetzeko** gakoa.

Gure inguruko **baliabide naturalak aprobetxatu** nahi ditugu. Horrela, bakea, energia positiboak, eta abar landuko ditugu bezeroen ongizatea hobetzeko. Gainera, ekintza horiek egiteko ez da beharrezkoa planeta kutsatzen dituzten materialak erabiltzea, jasangarritasunak garrantzi handia izango baitu planteatzen ditugun ekintza guztietan.

**Premia bereziko eta aniztasun funtzionala** duten pertsonak ere tartea izango dute gure proiektuan. Bai mugikortasun mugatua duten pertsonentzat, itsuentzat, down sindromea duten pertsonentzat... inor baztertuta ez sentiarazteko, aniztasuna aberastasuna baita **JUBIZIRIK**rentzako.

Guk eskainiko ditugun zerbitzuek **prezio egokiak eta malguak** izango dituzte, guretzako ezinbestekoa delako edozein izanda gure bezeroen ahalmen

ekonomikoa, eskaintzen ditugun zerbitzuak kontsumitu ahal izatea. Horrekin lotuta, plazak ez dira mugatuak izango, baina noski, zenbat eta bezero gehiago izan, gero eta ekintza gehiago antolatu behar izango ditugu. Hori gure **balio kuantitatiboa** izango litzateke.

**Balio kualitatiboari** dagokionez, ditugun baliabideekin errespetuz lan egingo dugu, hau da, natura kutsatu edo kaltetu gabe; eta aldi berean, **naturaz** gozaten. Gainera, gure oinarri nagusia bezeroekin harreman zuzena izatea izango da.

Laburbiltzeko, gure ideia nagusiak taula honetan adierazi ditugu.

|                                     |   |
|-------------------------------------|---|
| <p><b>GURE OINARRIAK</b></p>        | <ul style="list-style-type: none"> <li>-Hirugarren adinekoak gaur egungo gizartean txertatzea beste adin taldekoekin harremanetan jarritz.</li> <li>-<b>Kalitatezko</b> bizi esperientziak eskaini.</li> <li>-Mota askotariko ekintzak eskaini.</li> <li>-Kultura, hizkuntzak, ohiturak... sustatu.</li> <li>-<b>Natura</b> baliabide bat bezala hartu, beti horrekiko errespetua bermatu.</li> <li>-<b>Aniztasunaren</b> alde eta tolerantziaren alde egin.</li> <li>- Ekonomikoki edozeinen esku egotea.</li> </ul> |
| <p><b>ZERK BEREIZTEN GAITU?</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Harreman <b>pertsonalizatua</b>, adeitasuna, kalitatezko harremanak eta zerbitzuak,...</li> <li>-Bizimodu aktiboa sustatu eta ikuspuntuak aldatu.</li> </ul>   |
| <p><b>BALIO KUANTITATIBOA</b></p>   | <ul style="list-style-type: none"> <li>-Eskainiko ditugun zerbitzuek <b>prezio egokiak</b> eta baxuak izango dituzte, krisialdi garai hauetan, ahalik eta jende gehienek kontsumitu ahal izateko.</li> <li>-Plazak ez dira mugatuak izango, zenbat eta bezero gehiago gero eta ekintza gehiago antolatuko ditugu.</li> </ul>  |
| <p><b>BALIO KUALITATIBOA</b></p>    | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ditugun baliabideekin <b>errespetuz</b> lan egin.</li> <li>-Bezeroekiko harreman zuzena.</li> <li>-<b>Naturaz</b> gozatu.</li> </ul>   |